

## PONENTZIA POLITIKOA

SARRERA.....	2
HAUTESKUNDEAK EAE-N.....	2
EUSKO JAURLARITZAREN ERAKETA.....	3
AUTOGOBERNUA, BURUJABETZA ETA NORMALIZAZIO POLITIKOA.....	5
I. PRINTZIPIO IDEOLOGIKOAK.....	12
1. AUTODETERMINAZIOA ETA INDEPENDENTZIA .....	13
2. PRINTZIPIO DEMOKRATIKOA.....	14
3. SOZIALDEMOKRAZIA .....	16
II. NORMALIZAZIO POLITIKOA ETA BAKEGINTZA .....	18
1. NORMALIZAZIO POLITIKOA .....	18
2. EUSKAL AUZIA.....	18
3. KONPONBIDEAK .....	19
4. ESTATUTU BERRIAREN PROPOSAMENA, EUSKO LEGEBILTZARRAK 2004-12-30EAN ONARTUA.....	20
5. HERRI KONTSULTAKO LEGEA.....	20
6. BAKETZEA .....	22
III. SOZIALDEMOKRAZIA GAUR EGUN.....	26
1. OINARRIAK ETA ERRONKAK .....	26
2. KRISIALDI EKONOMIKOA ETA ONGIZATE ESTATUA .....	31
IV. EGITURATZE INSTITUZIONALA .....	35
V. LURRALDE OSOTASUNA .....	38
VI. EUSKADI EUROPAR BATASUNEAN .....	40

## **SARRERA**

2007ko abenduan azken Ohiko Biltzar Nagusia egin genuenetik, mapa instituzionala irauli duten gertaera politiko garrantzitsuak izan dira, ziur asko normalizazio politikora eta bakera iristeko gure helburuak lortzea zailduko duten gertaerak.

2004ko hauteskunde orokorren ondoren PSOEek boterean PP ordezkatu zuenean, gure arazoak konpontzeko bidean aurrera egiteko itxaropena piztu zitzaigun, baina Legealdia amaitu zenerako balantzeak ezin zuen etsigarriagoa izan:

- Aurrerapenik ez Estatutuaren garapenean
- Bake-prozesuaren porrota.
- Estatutu berriaren Proposamena, bizikidetza eta normalizazio politikoko ekimen gisa, atzera bota izana
- Nafarroan Gobernu aurrerakoi bat osatzeko oztopoak.

2008ko martxoan, Estatu espainolean lortutako garaipena berritu zuen PSOEek eta azken bake-prozesua behin betirako lurperatu zuen, eta PSEko zinegotzi Isaiás Carrasco ETAK hil izana erabakigarria izan zen ziur asko erabaki horretan. Espainiako Gobernuaren estrategia bide polizial eta judizialean soil-soilik oinarritu da beste behin ere, eta, gainera, nabarmen areagotu eta zabaldu ditu bide horiek.

## **HAUTESKUNDEAK EAE-N**

2009ko urtarrilean EAE eta EHAK alderdien aurka Auzitegi Gorenak urtebete lehenago erabakitako ilegalizazioa berretsi zuen Auzitegi Konstituzionalak. Otsailean, Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeak baino hilabete lehenago, D3M eta Askatasuna zerrendak legez kanpo utzi zituen Auzitegi Gorenak. Historian lehen aldiz, Gasteizko Legebiltzarrean parte hartzea eragotzi zitzaion ezker abertzale tradizionalari.

Hauteskunde-gauak agerian utzi zuen erabaki horren ondorio politikoa: PSEk, PPK eta UPyDK 38 legebiltzarkide lortu zituzten historian lehen aldiz erakunde horretan, hau da, eserlekuen

gehiengoa Eusko Legebiltzarrean. Alderdi abertzaleek eta EBk 37 lortu zituzten, eta gutxiengoan geratu ziren. Astebete geroago alde hori areagotu egin zen, Eusko Alkartasunaren kaltetan areagotu ere, PSErekin lehian zuen jarleku bat galdu egin baitzuen. Gasteizko Legebiltzarraren behin betiko osaera horrela geratu zen: EAJ 30, PSE 25, PP 13, Aralar 4, EA 1, EB 1 eta UPyD 1. Gehiengo erreala bestelakoa bada ere, 100.000 bozka baliogabeak kontuan izanda, horien artean baitaude ezker abertzale tradizionalaren legez kanpo utzitako hautagai-zerrendaren botoak.

Eusko Alkartasuna bere marka propioarekin aurkeztu zen hauteskundeetara lehen aldiz hamarkada bat baino gehiagoan, eta hondamendia izan zuen. Zazpi jarlekutik bakarra izatera igaro zen, eta horrek alderdiko presidente Unai Ziarretaren berehalako dimisioa eragin zuen hauteskunde-gauean bertan, eta ondoren EAko idazkari nagusi Joseba Azkarragarena eta zuzendaritzako beste lagun batena ere bai.

Emaitzak aztertuta, Ezohiko Biltzar Nagusirako deialdia egin behar zela iruditu zitzaion Euskadiko Batzorde Eragileari zuzendaritza berria aukeratu eta gogoeta sakona egin, akatsak aztertu eta egoera horretatik sendotuta ateratzeko. Era berean, Batzar Nagusiari proposatu zion, estatutuek biltzen dutenari jarraiki, behin-behineko presidenteorde bat izendatzea Ezohiko Biltzarra egin bitartean, eta hark alderdiaren zuzendaritza oso-osorik bere gain hartzea. Koldo Amezketari egokitu zitzaion erantzukizun hori.

## **EUSKO JAURLARITZAREN ERAKETA**

Azken urteetako balantzeari Eusko Jaurlaritza berriaren eraketaren perspektiba gehitu behar zitzaion, eta EAJ-PSEk edo PSE-PPk eratzen zutela ere, atzerapausoa izango litzateke hori gure eskubide nazionalen aldarrikapenean. Baina zalantzak berehala argitu ziren. PSOEk argi utzi zuen Lehendakaritza utziezina zela beretzat eta berehala lortu zuen, hauteskunde-gauean bertan, PPrean eta UPyDren babesa Ibarretxe lehendakaria ordeztu eta hirukoa gobernutik kentzeko.

Egun gutxitan, PSEk eta PPK gobernu-akordio bat adostu eta aurkeztu zuten, eta "Aldaketa demokratikorako oinarriak euskal gizartearen zerbitzura" izenburupean asmo-deklarazio bat biltzen zuen, lehenik aurreko kudeaketa guztia deslegitimatuz eta bigarrenik hainbat neurri

aurreratzen zituen herri gisa dugun nortasunaren esparruari buruzkoak, linguistikoak, kulturalak eta hezkuntza-arlokoak, batez ere, kontrarreforma izateko asmo garbiarekin, azken 30 urteetan euskal abertzaletasunak garatutako politikekiko kontrarreforma, hain zuzen ere.

Ikurren politikan aldaketa gauzatzeko bidea euskara, Ertzaintza eta EITB dira, besteak beste, akordio horren lehentasunezko helburu, aurretik egindako guztia kritikatzin eta ezeztatzen duen akordioarena, alegia. Eta obsesio hori PPren adierazpen publikoetan ere argi eta garbi geratu da, eta euskal irratitelebista publikoko langileek eta hezkuntza-arloko ordezkariak eurekiko errespetua izatea ere eskatu diete horien ondorioz.

Laburbilduz: alderdiaren hauteskunde-emaizta txarrari Eusko Jaurlaritza frentista baten eraketa gehitu behar zaio, PSEk gidatutakoa baina politikoki PPK baldintzatutakoa, alderdi horiek Gasteizko Legebiltzarrean lortutako gehiengo artifizialaren ondorioz, matxoaren leku hauteskundeetan Alderdien Legea aplikatuta.

Bakearen eta normalizazio politikoaren arloko egoera kontuan hartu behar da, eta helburu bikoitz horretan Eusko Jaurlaritzan izandako protagonista-aldaketak ekar ditzakeen ondorioak. Gobernu-aldaketa iragarri bezain laster, beste bake-prozesu bat irekitzeko aukera aurreratu zuten sozialisten arteko zenbait ahotsek, baina badirudi adierazpen horiek ez dutela inolako funtsik, eta dena den, terrorismoaren aurkako ohiko hizkuntza latzarekin nahasten dira. Informazioak ez dira argiak, eta frogak ere ez, ETA une bereziki ahulean dagoela dirudien arren. Gainera, litekeena da PSOE bakea propagandarako baino ez den amu gisa erabiltzen ari izatea, gehiengo sozial abertzale haserretu baten aurrean autolegitimatzeko, Lehendakartzara iristeko erabili dituen maniobra maltzurerekin erabat desados dagoen gehiengoa izaki.

Hori guztia ez-normalizazioko testuinguru batean eta bi ahaleginen —Estatutu Politiko Berria eta Kontsulta Legea— porrotaren ondoren, estatu espainolak eta EAJk aurrerapausoak emateko erakutsitako ezinak azpiratutakoak, euskal estatu berri baten eraikuntzan pausoak emateko erakutsitako ezinak, nahi historiko horren ordez Espainiarekiko tratu atsegina ezarriz.

Gasteizko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan Ibarretxe lehendakaria hauteskunde-zerrendako buru agertu izana gure hauteskunde-proposamenak emaitza hobea lortzeko

zailtasuna izan zela onartuta, ziklo politikoa gobernu frentista espainol batekin aldatu den une honetan, lehendakariak politika utzi egin du, eta haren alderdian aurreikus daitekeen estrategia-aldaketa ildo soberanistarantz, edo aitzitik, sobera ezagutzen ditugun posizio autonomistetarantz.

## **AUTOGOBERNUA, BURUJABETZA ETA NORMALIZAZIO POLITIKOA**

Gure Autogobernua areagotzeko Herri gisa dagozkigun eskubideez gain, arrazoi historikoen eta praktikoek bultzatzen gaituzte gaur egungo estatutismoa gainditzera: 1999az geroztik ez da inolako aurrerapauso argirik izan transferentzien esparruan, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-arloan batera partaidetutako azken eskumen-transferentzia izan ezik, 2008. urteko amaieran. Estatutu-ituna betetzea eskakizun demokratikoa da; aitzitik, Espainiako Gobernuan txandakatzen diren alderdien interes politikoen baitan dago oraindik ere, baita ideia eta proiektu politikoei uko egiteko xantaiaren eta unean-unean lege eta estrategia jakin batzuen alde egiteko xantaiaren baitan ere.

Egin gabe dauden transferentzia garrantzitsuak —Portuak eta Aireportuak, Justizia Administrazioa, Enplegu Politika aktibo eta pasiboak, Turismoa, Gizarte Segurantzaren Erregimen Ekonomikoa, Espetxe-politikak, etab.; guztira, 36 gai— oraindik ere blokeaturik daude Estatutuak 30 urte bete behar dituen honetan. Transferentzia-lehorteaz gain europar esparruko eskumenen higadura eta urratzea ere salatu behar dugu, Estatuak eragotzi egiten baitu autonomia-erkidegoek Erkidegoko arauen osaeran parte hartzea, EAEren eta NFEren eskumenekoak soilik diren arloetan. Egoera eutsiezina da eta, euskal gizartearentzat zigor politikoa ez ezik, arrazoi gehigarria ere bada indarrean dagoen esparrua gainditzeko erabaki politikoari eusteko.

Bakegintzari dagokionez, Rodríguez Zapateroren lehen Gobernuak, PSE/PSOEn eta Batasunaren artean ezkutuan egindako akordio eta itunek bahituta, eskuin mediatikoaren eta PPren diskurtso immobilistaren babesekin, porrot egin zuen bere estrategian; izan ere, okerreko planoak eta solaskideak aukeratu zituen eta normalizazioa ETA desagertzearen baitan hipotekatu, Euskal Herriaren ordezkaritza politiko eta instituzional bakarrari negoziazioan parte hartzeko aukerarik eman gabe: Parlamentuak, Gobernuak eta Alderdiak.

Bakea lortzeko ezinbestekoa da ETA desagertzea, baina ez hori soilik. Baketzea, jakina, indarkeria ezabatzea da, bakearen aurkako atentaturik latzena baita indarkeria. Baina, horrez gain, bizikidetza baketzea da, Euskal Gizartean gatazkak sortzen dituzten arrazoiak ezabatuz, justiziaren gainean bakea eraikiz.

ETAk indarkeria uzteari edo desagertzeari buruz negoziatzea ezake Estatuarekin, baina inork ez diogu aitortzen ez aginpiderik ez baimenik normalizazio politikoaren baldintzak ezartzeko; izan ere, baldintza horiek ezartzea Euskal Herriari eta haren ordezkariak demokratiko eta instituzionalari dagokie.

Planoen, prozesuen eta solaskideen nahaste interesatu horren ondorioz, bakegintzan porrot egin izanak gauza bera eragin du normalizazioan. Inor ez dago legitimatuta bata bestearen baitan jartzeko. Indarkeriaren desagertzea eskakizun etiko eta autonomoa da. Normalizazioak eskubideekin du zerikusia. ETAk ezin du bere desagertzea eskubideak aintzat hartzearen baitan jarri; eta Estatuak ez du indarkeria aitzakiatzat hartu behar eskakizun demokratikoei uko egiteko eta proiektu politiko legitimoak atzeratzeko edo bertan behera uzteko eskatzeko.

Horixe da, ordea, bizikidetza **normalizatze**ko ekimen instituzional eta demokratiko bakarrarekin gertatu dena, Eusko Legebiltzarraren gehiengo absolutuaren bidez 2004ko abenduaren 30ean onartutakoa, eta Gorteek 2005eko otsailaren 1ean blokeatu eta eragotzitakoa. Adierazi zuten eta inoiz frogatu ez duten ustezko konstituziokontrautasunaz gain, funtsean, prozesua monopolizatzeke nahiari eutsiz, ez Gobernuak, ezta ETAk ere, ez zioten inori protagonismo hori kentzen utzi, ezta bakoitzak prozesutik lortu nahi zituen irabaziak arriskuan jartzen ere.

Gorteen erabakia, espero genuen arren eta iragarrita zegoen arren, Erakundeetan ordezkaturiko herri-borondatearekiko mespretxu hutsa izan zen, baita itxura demokratiko formala duen “maskarada” ere, nola hartu zen kontuan izanik.

Erregelamendu-mekanismoen eta ezarritako prozeduren bitartez, euskal ekimen hura eztabaidatzeko eta argitzeko aukerari atea itxi zitzaion, eta horixe da hain zuzen ere Parlamentu oren berezko eta funtsezko eginkizuna: eztabaidatzea.

Bien bitartean, Kataluniako Estatutua, Konstituzioaren aurkako zenbait alderdi edo gai egotzi bazizkieten ere, izapidetzeko onartua izan zen, negoziatua eta azkenik 2006ko uztailaren 19an onartua. Jarrera desberdin horrek erakusten digu, beste behin ere, borondatea eta interes politikoak izanez gero argumentu juridikoak bigarren mailara igarotzen direla.

Erdeinagarria da, termino politikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoa gaur egun bere eskumenak guztiz garaturik ez dituen eta bere Estatutuaren Erreforma izapidetzeko onartuta ere ez duen Autonomia Erkidego bakarra izatea, kontuan izanik 1977an konponbide autonomikoa bultzatu zuten autogobernu-errebindikazioen protagonista nagusia izan zela eta irtenbide hori nahi ez zuten Eskualdeei ere inposatu zitzaizela.

Erregimen arrunteko Autonomia Erkidego guztiek 1992an beren Estatutuen erreforma egin zuten, beren eskumenak areagotuz. Eta batzuek hirugarren Erreformari ere ekin diote.

2006an, Valentziako eta Kataluniako Estatutuen Erreformak onartu ziren. 2007an, berriz, Andaluziako, Balearretako, Aragoiko eta Gaztela-Leongo Estatutuen erreformak onartu ziren, eta Gaztela-Mantxakoa onarpen-fasean dago.

Diskriminazio-egoera hori justifikatzeko, Euskal Estatutuaren Proiektua Estatuarekiko borroka-jarrera dela esan dute, eta, egia desitxuratzeaz gain, ezkutatu egin dute konstituzio-aurreikuspenen arabera erabakitze eta ituntzeko eskubidea defendatzeko titulu juridikoak dituen Estatutu bakarra dela. Horri dagokionez, erabakitze eta ituntzeko eskubidea **eskubide historikoen** funtsa da, eta Konstituzioak eskubide horiek aintzat hartu eta Estatutuak eguneratu egin zituen. Hori guztia legitimitate ukaezina duten beste titulu batzuk aipatu gabe, hala nola **printzipio demokratikoa** eta Herri eta Nazio gisa dagokigun **autodeterminazio**-eskubidea.

Botere Betearazlearen eta Legegilearen jarrera obstrukzionista horrekin bat egin du Botere Judizialak. Independentea dela aldarrikatzen den arren, Botere Judizialak garbi erakutsi du PPren eta PSOEren estrategia politikoak bere egin dituela.

Bake-prozesua ireki zen arren, PPren eta Alderdien Legeko aginduak barneratuta zituen korrante judizialak, arauak interpretatzeko eta aplikatzeko aintzat hartu beharreko testuinguru soziala eta errealitate soziala bazter utzita, muturreraino gehitu zuen tentsioa, lehendakaria eta

Legebiltzarreko Mahaia inputatzeko prozesua irekiz eta prozesu horri eutsiz. Beste muturretik, PSOEtik gertu dauden agintari judizialek guztiz nahastu zuten bakegintzaren panorama, Batasunaren Mahai Nazionalako kideak espetxeratzeko erabakiak hartuta, betiere interes elektoralistei jarraiki. PPren kritikei erantzuteko “gogor” jokatzeko itxura egiteko jarrera heldugabe hori —alegia, solaskide izandakoak espetxeratzea— demokratikoki onartezina eta harrigarria da Europako testuinguruan; horrez gain, mendekua hartzeko egina dirudi, eta oso ondorio larriak izan ditu indarkeria terrorista areagotzeari dagokionez.

Botere Judizialak independentzia, neutraltasuna eta justizia demokratikoaren printzipioak lortu behar ditu, eta bere izen handia gatazkak konpontzeko erabili behar du, ez gauzak dauden baino gehiago nahasteko. Horretarako, ebazpen antidemokratikoak eragiten jarrera alde batera utzi eta gainerakoen gainetik ez dagoen Boterea dela onartu behar du; izan ere, gainerako botereak kontrolatzen ditu, baina ez du bera kontrolatzea onartzen.

Estatuko eremuko Erakundeen, Botereen eta gehiengoa duten Alderdien jarrera orokor horri —irtenbide politikoak oztopatzea— ETAREN esku-sartze antidemokratikoa gehitu behar zaio; izan ere, tematuta dago Euskal Gizartea nahi ez duen bidetik eramaten, haren sufrimenduarekin eta haren gaitzespen irmoari sistematikoki entzungor eginez, eta oztopo larri bihurtuz gure helburu nazionalak lortzeko.

ETAk ez du aginpide politiko, demokratiko, eta, jakina, ezta moralik ere euskal gatazkarentzat konponbideak finkatzeko, ezta desagertzeko baldintzak ezartzeko ere. ETAk, fronte guztiak berriz irekitzeko erabakia hartuta, Estatu espainolari ez ezik Euskal Herriari ere egiten dio aurka, eta berriz ere etsipen politikoko egoerara kondenatu du gure herria, baita gure herriaren garapena eta ongizatea arriskuan jarri ere, mehatxuaren, estortsioaren eta hilketaren bidez; halaber, bakea lortzeko helburua objektiboki urrundu du eta Estatuari aitzakiak eman dizkio Euskadin ez-normalizazio politikoa iraunarazteko.

EAK, 2006ko apirilean, jokaleku politikoa gaur egungoa bezain iluna ez zenean, “Normalizazioa eta Bakegintza” izeneko dokumentua kaleratu zuen. Dokumentu horren ildo nagusiak indarrean daude egungo egoeran. Euskal gatazkaren nondik norakoaren eta hartarako konponbideen azterketak eta diagnostikoak ez dute gaurkotasunik galdu. Dokumentu hartan adierazi genuenez, gure postulatu ideologikoak berrestea bateragarria zen Estatutuaren Erreforma Proiektuaren aurrerapen-estrategiarekin. Izan ere, Proiektu horrek



gure azken helburuak betetzen ez zituen arren, autonomismoaren eta independentziaren arteko jauzi kualitatiboa ekarri zuen: burujabetasuna eta atxikimendu librea.

Gertaera garrantzitsu eta positiboa izan zen lehendakariak Herri Kontsultarako deialdia egiteko proposamena adierazi izana, Eusko Jaurlaritzaren izenean, 2007ko irailaren 28an, Euskal Gizarteak eman diezaion baliozkotasun juridikoa Itun politikoari, edo, hala badagokio, Erakundeak eta Alderdiak elkarrizketako eta negoziazioko prozesua irekitzeko gai ditzan, indarkeria amaitu eta normalizazio politikoko gatazka konpontzearen. Gure ekimenarekin eta babesarekin gauzatu zen erabaki hori.

Garbi geneukan egungo egoeran proposamen horren bideragarritasun politikorako zailtasunak zeudela, baina horrelako planteamenduak aurrera eramateko zaila izaten da une egokia aurkitzea. Bestalde, ez zen kanpotik zetorkigun erabakia, parte hartzen genuen Gobernuarena baizik, eta horren ibilbide-orriaren azken tarteak 2010. urtera ginderamatzan eta Biltzarren arteko aldia hartzen zuen datozen hiru urteotarako erreferentzia estrategiko gisa.

2008ko ekainean Gasteizko Legebiltzarrak Herri Kontsultako Legea onartu zuen hirukoaren, Aralarren eta EHAK-ko legebiltzarkide baten babesarekin. Aste batzuk geroago, Espainiako Gobernuak (PSOE), Estatuko Abokatu Nagusiaren bidez, legearen aurkako konstituziokontrakotasun-errekurtsoa aurkeztu zuen Auzitegi Konstituzionalean, lege hori egikaritzea urte bereko urriaren 25ean aurreikusia zegoelarik.

Errekurtsoa formalizatu bezain laster, gure gobernu-bazkidearen (EAJ) zuzendaritzak publikoki adierazi zuen epaia onartuko zuela, gustatzen ez bazitzaion ere. Irailean, Euskal Kontsulta Legearen konstituziokontrakotasuna deklaratu zuen Auzitegi Konstituzionalak. Epaia judizialari erantzunez, alderdi bultzatzaileek (EAJ, EA eta EB) eta Aralarrek ekitaldi bateratua antolatu genuen, "Hitza Hitz" goiburupean. Egun berean, ezker abertzale tradizionalak beste ekitaldi baterako deialdia egin zuen bere kontura. Aldarrikapeneko eta salaketako egun bihurtu zen 2008ko urriaren 25a. Baina etsipen demokratikoko egun ere bai.

Kontsulta Legearen baliogabetzearekin gertatutakoak argi eta garbi erakusten digu PSOEek eta PPK, gure herriaren autogobernuan aurrera egiteko edozein saio ezabatzeko, aurrera daramaten estatu-politika. Lehenik "kontsulta" kontzeptua "erreferendum" kontzeptuarekin identifikatu zuen, Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak kontsulta-eskuduntza egikari

zezala saihesteko, erreferendum-eskuduntza gisa hartuta, eta eskuduntza hori botere zentralentzat gordeta dago Espainiako Konstituzioaren arabera. Horretaz gain, eta are larriagoa da hori, kontsultaren bigarren galderan aipatutako erabakitzeko eskubidea autodeterminazio-eskubidearekin identifikatu zuten, horrek sezesioa ere ekar zezakeelako, eta Konstituzioaren 1.2 artikuluekin bonbardatu zuten kontsulta, eta bertan ezartzen denez "subiranotasuna Espainiako herrian datza". Hau da, Euskal Herria, bere horretan, ez da burujabea, eta euskal herritarrek Espainiako herriaren zati diren neurrian daukate burujabetza. Hori horrela, horma bat eraiki da Euskal Herriaren burujabetza ez onartzeko, eta EAk uste du horma hori eraitsi egin behar dela gure herriaren askatasunarekin konprometitutako indar politiko eta sozial guztiak uztartuta.

Horretarako, EAk konpromisoa hartzen du gehiengo sozial bat sortzearen lan egiteko, erabakitzeko eskubidearen bide politiko argi eta garbi soberanista ezartzeko eta sakontzeko, ardatz estrategiko gisa Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidea hartuko duena, EAren helburu estrategikoa lortzeko helburuarekin, hau da, euskal estatu errepublikar independentea sortzea Europar Batasunaren esparruan.

Adierazi ditugun zirkunstantzietatik batik bat Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremua hartzen dute eraginpean, baina horregatik ez dugu ahaztu behar Iparraldeko lurraldearen problematika espezifikoa. Iparralden administrazio-departamendu propioaren alde egiteari eutsi behar diogu, Estatutu propioa eta bereizia aintzat hartzeko oinarri instituzional gisa. Helburu hori lortzeko lagungarri diren herri-mugimendu kultural, sozial, ekonomiko eta politikoak bultzatzen jarraituko du EAk bere antolamendu propioa oinarri hartuta.

Nafarroako egungo egoera politikoak, lurralde horretan nazionalismo espainiarraren ordezkari diren bi alderdi nagusien (UPN eta PSN) ekintza-batasuna eta Nafarroako eskuinaren eta Alderdi Popularraren arteko itunaren haustura (azken alderdi horren ondoriozko berrantolamenduarekin Foru Erkidegoaren esparruan) ezaugarritzat dituenak, azterketa birmoldatzera behartzen gaitu, baita, batetik eskuinaren bloke tradizionalaren zatiketa-politika berri horren eta, bestetik, UPNren eta PSOEren nafar sukurtsalaren arteko konplizitatearen sendotzearen ondoriozko igurikimenak birmoldatzera ere.

Egoera horren aurrean, berretsi egiten dugu Nafarroako gure apustu estrategiko bikoitza: Nafarroa Bai sendotu eta indartzea Nafarroan egin beharreko aldaketa sozial eta politikorako

tresna gisa, eta gobernu-alternatiba gisa eskuin foral eta espainiarrarekiko, alde batetik, eta, bestetik, alderdiak lurralde horretan dituen egiturak eta funtzionamendua indartzea eta berritzea. Erabaki estrategiko funtsezkoa, erakunde politiko eta herrialde gisa, eraikuntza sozial eta nazionaleko gure azken helburuak lortzeko, baita Euskal Herriaren lurralde-egituraketa gauzatzeko ere.

Testuinguru politiko horretan egingo dugu gure Ezohiko Biltzar Nagusia, etorkizunean jarraituko ditugun ildoak ezartzeko, honako oinarrizko gai hauek aztertuta:

## **I. PRINTZIPIO IDEOLOGIKOAK**

1986ko irailean EAren sorrera bultzatu zuten arrazoien artean, garrantzitsuena da, zatiketa probintzialistarekiko botere nazional sendoa izango duen herrialde-ereduaz gain, autonomismoan eroso kokatuta dagoen nazionalismo pragmatikoa indarberritzea eta Estatu propioa eratzeko autodeterminazio-eskubidearen esanbidezko proklamazioa, baita norabide aurrerakoi bat eta antolamendu-eredu berri demokratikoago bat ere.

Gaur egun, ia 30 urteko esperientzia autonomikoa izanik, eta lortutako autogobernu-maila dagokion neurrian ponderatzea bazter utzi gabe, ziur gaude egungo estatutu-eredu horrek dagoeneko eman dituela bereak.

1978an, Francoren diktaduratik irten berriak ginela eta demokrazia finkatu gabe zegoela, zuhurtziak bultzatuta errebindikazio politiko jakin batzuk alde batera utzi ziren, baina gaur egun errebindikazio horiek ezin dira gehiago atzeratu. Bestalde, Estatutuaren garapenak ez ditu bete itunduriko autogobernu-mailak ere. 36 gai transferitu gabe daude, eta, gainera, horietako asko inoiz ez direla transferituko iragarri dute, eta lehengoratuko dituztela ere esaten da. Autonomia politikoa administrazio-deszentralizazio uniforme bihurtu da, ezarian ezarian eta etengabe, Doktrina eta Oinarri Lege hedakorren eta zentralizazio aldeko Jurisprudenzia Konstituzionalaren eraginez.

Egitura zentralistak ordezteko eta aldi berean Nazionalitate historikoen autogobernu-nahiei erantzuteko helburua zuen eredu autonomikoak garapen utilitarista hutsa izan du eta ez dio konponbiderik eman bide historiko-errebindikatiboari.

Horren ondorioz, ez dago gaur egungo sisteman iraunarazteko arrazoirik, ez postulatu ideologikoak, ez praxia kontuan izanik.

## 1. Autodeterminazioa eta independentzia

Fundazioko Biltzar Nagusitik, Euskal Alderdi Nazional gisa definitu zen EA, autodeterminazioaren bidez Estatu independente bat sortu nahi duena, euskaldunen borondate demokratikoa ordeztu nahi dutenekiko erabat kontrajarritako alderdi gisa, kanpoko erakundeak inposatuta edo koakzio antidemokratikoaren bidez borondate demokratiko hori ordeztu nahi dutenekiko kontrajarria, alegia.

Ondoren egin diren Biltzarretan nortasun-ezaugarri horiek zehaztu eta indartu dira eta, zehazki, V. Biltzarrean EAren nazionalismo abertzalea bereizten duten honako ezaugarri hauek onartu ziren:

- a) **Identitarioa eta zibikoa**, Herri edo Nazioaren eskubideak bertan herritarren borondate demokratikoarekin uztartuz, inposizio dogmatikorik eta esentzialistarik gabe
- b) **Autodeterminazionista**, erabaki demokratikoko tresna gisa, bere barne-antolamendu politikoari eta beste Herri, Nazio edo Estatuetikiko harremanei dagokienez
- c) **Independentista**, edozein Estaturekiko independentzia legal eta juridikoa izateari dagokienez
- d) **Estatalitate propioa**, Europan txertatua, herritar, lurralde eta eratzeko ahalmen propioekin
- e) **Estatu bateratua lurraldeari dagokionez**, Euskal Herria osatzen duten Lurralde guztiek osatua, herritarren erabakia bazter utzi gabe eta prozesuak eskatzen dituen urratsak eginez
- f) **Aurrerakoia eta sozialdemokrata**, gizarte iraunkor, zuzen, libre eta solidarioa eraikitzen bideratua, aukera-berdintasunean eta Ongizate Estatuak ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukeran oinarritua.

Aurreko artikuluetan puntu bereizle gisa ezarritakoaz gain, euskararen defentsak, hizkuntza propio gisa, eta euskal kulturaren defentsak Eusko Alkartasunaren konstante izaten jarraituko dute.

Helburu politiko horiek bide soil-soilik demokratikoen bitartez eta indarkeria esanbidez arbuaiatuta lortzeko, autodeterminazio-eskubidea baliatzea hartu zen egokientzat —betiere

beste titulu batzuei uko egin gabe—, edo bestela eskubide historikoen bidea; izan ere, ongi interpretatzen bada, erabakitzeko burujabetza onartzen du.

Aldarrikapen horiek berrestea bazter utzi gabe, autodeterminazio-eskubidearen aplikazio praktikoari nazioarteko gizartean jartzen zaizkion oztopoak ikusita —jendeari Herria edo Nazioa osatzea eragozte, alegia— egin den hausnarketa juridikoak ondoren izan duen bilakaera dela-eta, **“Printzipio Demokratikoa”** deiturikoari heldu behar izan zaio berriz, antzeko emaitzak lortzeko bidea irekitzearen.

EAK, Titulu Historikoez eta Autodeterminazio Eskubideaz gain, Printzipio Demokratikoa biltzen du esanbidez bere ideia politikoaren artean.

## 2. Printzipio demokratikoa

Ikuspegi praktikotik, printzipio honek ez ditu kontuan hartzen Estatuak eta Nazioarteko Komunitateak autodeterminazio-eskubidea onartzeko jartzen dituzten bi oztopo nagusiak: Herria garela ukatzea eta legezko testu politikoetan esanbidez ez onartzea.

Printzipio hau nazionalismo zibikoan oinarritzen da, eta ez du eskatzen alde aurretik Nazioa osatu izana, ezta Nazio hori aintzat hartu izana ere. Nahikoa da erabaki demokratikoa. Bestalde, Konstituzio demokratiko guztien oinarritzko printzipio gisa, Ordenamendutik ondorioztatzen da, eta, beraz, ez da beharrezkoa esanbidez formulatzea edo aintzat hartzea, bide demokratikoak irekitzeko aukera emanez Europar Batasunaren baitan gure estatus politikoa erabakitzeko.

Printzipio hau ezaguna egin da jendearen artean Kanadako Gorte Gorenak 1998ko abuztuaren 20an emandako Irizpenaren ondoren, baina askoz ere tradizio zaharragoa du. Printzipio honen lehen formulazio ofiziala KILBRANDON Txostenean agertu zen, 1973an.

Erresuma Batuak, mugimendu nazionalen eta eskualde-mugimenduen indarra kontuan hartuta, Erresuma osatzen zuten herrialde, eskualde eta nazio guztien eskaerak ikusita egin behar ziren proposamenei eta aldaketei buruzko Txostena egiteko eskatu zion aditu eta ordezkari politikoek osaturiko “Royal Commission” bati 1969an. Txosten horretan oinarrituta, *“Demokrazia eta Botereak Eskoziari eta Galesi itzultzea”* izeneko Liburu Zuria

idatzi zen 1974an. Bestalde, printzipio demokratikoaren oinarria den baieztapen bat biltzen du txostenak. Honako hau dio:

*“Nazio terminoaren esanahiari buruz etengabe argudiatu dugu. Faktore geografikoak, historikoak eta etnikoak hartu behar dira kontuan, aldi berean, baita hizkuntza eta kultura ere. Horietako bakar batek ere, banan-banan edo elkarrekin, ez digu emango erantzun erabakigarriarik. Informazioa eman digutenen arabera, herriak dira epailerik onenak; hortaz, herri-kolektiboren batek nazio bereizia dela uste badu, ez da besterik behar nazio hori izan badela frogatzeko”.*

Kontsiderazio hori kontuan hartuta, Txostenak egiaztatu zuen Eskoziari eta Galesi zegokienez baldintza horiek betetzen zirela; izan ere, bertan bazen *“national feeling”* deiturikoa, ezaugarri objektiboetan bai, baina batez ere Nazio bat izatearen autokontzientzian eta Nazio bat izateko eta eratze borondatean oinarritzen zena. Argudio horri eutsiz, erreferendum batean gehiengoak borondate hori adierazten duenean, borondate hori aintzat hartu behar da printzipio demokratikoa aplikatuta, Kanadako Gorte Gorenaren doktrinaren arabera.

Kasu horretan, Kanadako Gobernuak oinarritzko bi alderdiri buruzko Irizpena ematea eskatu zion Gorteari (Gorte Gorena Konstituzio Auzitegiaren parekoa da):

- Ba al dagokio Quebec-i autodeterminazio-eskubidea?
- Kanadatik bereiz daitezke beren aldetik Quebeceko Erakundeak?

Erantzuna honako hau izan zen:

- Ez Nazioarteko Zuzenbideak, ezta Kanadako Zuzenbideak ere, ez diote onartzen Quebeci autodeterminazio-eskubidea, ezta bere aldetik bereizteko eskubidea ere.
- Dena den, erreferendum batean Quebeceko herritarren gehiengo garbiari sezesioari buruz garbi galdetuta emaitza positiboak lortzen badira, Kanadako Gobernuak, gehiengoak errespetatzeko printzipio demokratikoari jarraiki, Quebecekin negoziatzeko betebeharra du. Quebecek, berriz, federazio-printzipioari jarraiki, konponbidea negoziatzeko edo ituntzeko betebeharra du, bere aldetik jardun baino lehen.

Izan ere, Eusko Legebiltzarrak onartutako Kontsulta Legea argi eta garbi zegoen doktrina horretan inspiratuta. Kontsulta bati gure babesak emateak ez luke autodeterminazio-eskubidea eta printzipio demokratikoa aplikatzearen ondoriozko independentziari uko egitea ekarriko.

### **3. Sozialdemokrazia**

Alderdi politiko gisa eratu ginen uneaz geroztik eta ondoren etorri diren Biltzar Nagusietan gure ideologia sozioekonomikoa gorpuztu dugu, sozialdemokrazia deitu ohi zaionaren barnean kokatuz. Pentsamendu-korrante hori, formulazio teoriko guztiak bezalaxe, aldaketaren, bilakaeraren eta aurrerapenaren legearen eraginpean dago.

Kapitalismoak ekarri zuen liberalismo ekonomiko indibidualista gainditu nahi zuen sozialismoak, eta, bestetik, europar demokraziak korrante iraultzaile historikoari aurre egin zion, proletarioen diktadura izeneko ezartzeko estatu-egiturak desagerrarazi nahi zituelako. Sozialdemokraziak, funtsean, Sozialismoaren eta europar demokraziaren ekarpenak uztartu nahi ditu.

Sozialdemokraziak eskubide ekonomiko indibidualak gizarteratu nahi ditu dagokien gizarte-eginkizuna zehaztuz, autodeterminazioaren bitartez, eskubide politiko indibidualak Gizarte Taldeei eta herriei aplikatu zitzaizkien bezala. Autodeterminazioak eta Sozialdemokraziak inspirazio-iturri beretik edaten dute: eskubide indibidualak —sozialak, ekonomikoak eta politikoak— gizarte- eta herritar-taldeetara hedatzea.

Autodeterminazioaren eta sozialdemokraziaren arteko lotura horrek, burujabetza indibidual eta kolektiboaren arteko horrek, koherentzia ematen die gure oinarri ideologiko guztiei. Autodeterminazioa galdatzen dugu, eta burujabetza Nazio gisa erabat egikaritzea eskatzen dugu, herritar burujabeek osatutako nazio gisa, askatasun zibiletan burujabe eta eskubide ekonomiko eta sozialetan ere burujabe. Baina garapen-eredu berri baten bidez soilik izango dugu Euskal Herriko gizon eta emakumeek erabateko burujabetza indibidual eta kolektiboa baliatzeko aukera, produkzio-harreman berriak, botere-harreman berriak, kultura berria eta bizimodu berriak bilduko dituen eredu baten bidez.



Maiz adierazi dugun bezala, gure asmoa independentzia da, bai, baina ez inolako ego politikorik asetzeko, baizik eta Estatu bat —Ongizatearen Estatua— osatzeko ezinbesteko tresna edo oinarria den aldetik. Horrek Gizarte bidezkoagoa eta kohesionatua ekarriko du berekin, eta hartan biziko diren herritar guztiek aukera berberak edukiko dituzte beren bizikalitatea eta aukera-berdintasuna bermatuko dituzten zerbitzuetara iristeko.

## II. NORMALIZAZIO POLITIKOA ETA BAKEGINTZA

EAK 2006ko apirilean normalizazioari eta bakegintzari buruz egin zuen Dokumentuan datozen urteotarako ildo estrategikoak bildu dira. Azken gertakizunen ondorioz hainbat egokitzapen egin ondoren, ildo horiek baliozkotzat eman daitezke eta Biltzar honetan aurkezten dira.

### 1. Normalizazio politikoa

Normalizazio politikoa bakegintza-prozesuaren zati da eta honako honetan datza: euskal auzia konpontzea, esparru juridiko-politikoak Euskal Gizartearen gehiengoaren nahietara egokituz, betiere bide demokratiko, legal eta baketsuen bidez. Legezko esparruak —**normatibitatea**— gizartearen helburu politikoak biltzen dituen heinean —**normaltasuna**— lortuko da **normalizazioa**.

### 2. Euskal auzia

Euskal arazoak bi alderdi ditu, jatorrian elkarren arteko loturarik ez zutenak eta historikoki bat egin dutenak: foru-auzia eta auzi nazionala.

#### a) Foru-auzia

Labur-labur azalduta, Foru Erregimena honako hau da: Lurralde jakin batzuen ahalmen juridikoaren eta nortasun politikoaren adierazpen historikoa, eta, hain zuzen ere, ahalmen horiek baliatuz, Lurralde horiek barne-autogobernuko sistema politiko-administratiboa sortu zuten eta, aldi berean, Koroarekiko, Monarkiarekiko edo Estatuarekiko kanpo-harremanetarako esparrua ezarri zuten. Esparru hori itun bidez gauzatu da historikoki.

Hurbilketa horren arabera, Foraltasunaren ezaugarri bereizgarriak honako hauek dira: Burujabetasuna edo autogobernuko barne-erregimena eta beste Erakunde Politikoekin kanpo-harremanak izateko modua erabakitze ahalmena.

Autogobernuaren eduki zehatzak eta itunak egiteko ahalmena garrantzitsuak diren arren, burujabetasuna edo erabakitze ahalmen librea da horien oinarria. Horregatik, auzi edo arazo foralaren funtsa **erabakitze burujabetza** da.

b) Auzi nazionala

XIX. mendean, hainbat bidetatik, mugimendu Nazionalistak sortu ziren, Mancini-k 1851n azaldutako “Nazionalitateen Printzipioa” eta autodeterminazio-eskubidea aplikatzearen ondorioz. Nazionalitateen Printzipioari jarraiki, Estatu-Nazioaren dogma frantsesa kontrako bihurtu zen, Nazio-Estatua, alegia. Autodeterminazio-eskubidea aplikatuz (Herriei eta Nazioei esleitzen dizkie eskubide demokratiko indibidualak), Estatuak eratzeko ahalmena gauzatzen da, hartarako titulu historiko espezifikorik izateko premiarik gabe.

XIX. eta XX. mendeetan bi auzi horiek bat egin zuten eta, horixe da euskal arazoaren edo auziaren nondik norakoaren gakoa: foruak itzultzea, erabaki librean oinarritutako autogobernua berreskuratzeko, eta independentzia, autodeterminazio-eskubidean oinarritutako Estatu propioa osatzeko.

### 3. Konponbideak

XX. mende osoan barrena eta XXI. mendearen hasieran, legezko konponbideak **Autonomia Estatutuen** bitartez bideratu dira soilik.

Autonomiak, eredu gisa, autogobernu kuantitatiboko aukerak ematen ditu soilik, eta emakida-erregimenean. Estatuak banatzen ditu **bere** eskumenak eta Estatuak ematen du autogobernua.

Tresna hori, teorian eta praktikan, ez da nahikoa izan oraindik ere gauzatu gabe dauden bi alderdiak gauzatzeko: burujabetza eta independentzia. Hortaz, honako bide hauei heldu behar izan zaie: **eskubide historikoei, autodeterminazioari eta, orain dela gutxi, printzipio demokratikoari.**

#### **4. Estatutu berriaren Proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2004-12-30ean onartua**

Normalizazio politikorako Proposamen horrek —Gorte Nagusiek atzera bota zuten 2005-02-01ean— autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzen zuen Hitzaurrean eta bere artikuluen zati batean. Hala ere, bi alderdi hartu zituen oinarritzat garatzeko: eskubide historikoen foru-bidea, hau da, erabakitze burujabetasuna, autogobernu-erregimen propioa ezartzeko, eta Estatuarekin askatasunez elkartzeko ituna.

Ekimen hori jauzi kualitatibo handia izan zen. Hala ere, ez ditu betetzen independentziari eta estatalitateari dagokienez ditugun nahiak. Horregatik, EAK proposamen horren alde egin zuen eta modu aktiboan parte hartu zuen proiektuan; izan ere, gure ustez, ez da inkoherentea asmo handiagoko helburuak defendatzea eta, aldi berean, ekimen laburragoak ere defendatzea. Independentziarako bidea egiteko lehenago burujabetza lortu behar da, eta, beraz, burujabetza mugatuko eta mailakako Proiektu batek ez du etorkizuna hipotekatzen.

#### **5. Herri Kontsultako Legea.**

Estatutuaren Erreformatarako ekimenari bide politikoa itxi ziotenetik, EAK behin baino gehiagotan adierazi du ekimen horri berriz heltzeko premia, urrats berriak eginez, hala nola Burujabetza Legea, Argitasun Legea edo Erreferendum Legea, eta, azkenik, auzi instituzionaleko eta erresistentzia demokratikoko proposamenak egin ditu.

Egoera horretan, lehendakariak Jaurlaritzaren Plan berri bat eman zuen argitara, Euskal Herriak bere etorkizun politikoari buruzko iritzia herri-Kontsulta baten bidez emateko aukera gauzatzearren, eta, horri dagokionez, epe eta neurri zehatzak ezarrita, eta horren guztiaren azken jokalekua 2010ean gauzatuko zen.

Euskaldunen erabaki librerako eskubidean oinarritzen den ekimen horretarako gure babesak markatu du eta markatuko du EAren estrategia datozen urteetan.

Isiltasun politikoko aldi hori ez zen alferrik galdu. Proposamena lantzeaz gain, burujabetasunari buruzko posizioak argitu ziren, eta Kontsulta-prozesua indarkeriaren esparrutik bereizi zen, ETAk, bere erabakien bidez, gure Herriaren agenda politikoa ezar ez zezan.

EAK garbi zeukan Estatuak ekimen horri aurka egiteak —hori aurreikus daiteke eta gainera, Estatuak kontra agertuko dela adierazi du— auzi instituzionaleko jokalekua ekarriko digula. Jokaleku horretan, hainbat arrisku izango da eta jarrera demokratiko hutsez erantzun behar diegu arrisku horiei, erresistentzia instituzional eta zibikoaren bidez, prozesua euskal gizartearen parte-hartzeari zabaldua eta betiere estatuaren eremua gaindituz Europaren eremuko konponbidea lortzeari begira eta Europar Batasuna osatzen duten Herrialdeen tradizio demokratiko luzean konfiantza izanez.

Ez da posible izan. Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren erantzun politikoak, hau da, erakunde horiek osatzen zituzten alderdi gehienenek, ez du behar zen neurririk eman. Legebiltzarrak ez zuen ezer adierazi Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kotsulta Legea baliogabetu zuenean, eta Eusko Jaurlaritzak bere haserrea eszenifikatu besterik ez zuen egin. Ezker Batua konpromisotik aldentuta eta EAJ konpromiso hori ginetik kendu nahian, EAren presioa baino ez zen geratu kotsulta, dena dela ere, aurreikusitako egunean egiteko, urriaren 25ean, alegia. Beste behin ere agerian geratu zen nork sinesten zuen benetan proiektuan eta nor ari zen gobernu-akordio bat konbentzimendu handiegirik gabe aurrera eramaten, besterik gabe. Ez dago zalantzarik Kotsulta Legearen erantzukizun politikoa PSOEk duela, hau da PSEk ere bai, PPren laguntzarekin, baina horren ondoriozko erantzukizun politiko handiena EAJk du, ziklo politikoaren aldaketa iragartzen hasia baitzen, 2020rako "kontzertu politiko" deitu zuenaren bitartez. Bidean geratu ziren "giza kontsignak" eratzeko merituzko zenbait kontzentrazio eta ondoren EAK Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegian jarritako salaketa, bizkor erreazionatuta.

Dena den, Kotsulta horren alde egin genuen, baina hainbat baldintzarekin. Lehenengoa eta funtsezkoa, printzipio demokratikoari jarraiki, gehiengoa eskatzea da, zeharkakotasunik gehitu gabe, estatu-eremuko alderdiek beto-eskubiderik ematea edo gutxiengoei garrantzi handiagoa ematea saihestearren. Ahalik eta integraziorik handiena lortzeko helburu nahigarria da, sozialki, zeharkakotasuna, baina ez da emaitza demokratikoa baldintzatuko duen oinarria. Ikusi dugu zer zen PSEk etengabe aipatzen zuen zeharkakotasun hori: PPrekin gobernu frentista espainiar bat eratzea, eta edozer esaten dutela ere, gobernu horrek ez dio herrialdearen gehiengo sozial eta politikoari erantzuten, eta atzerakada da autogobernuari dagokionez eta beste oztopo bat herrialde honek eskatzen duen normalizazio politikorako. Estatu-estrategia horrek bere aurrekaria du alderdi horiek berek 2007ko udan Madrilen

burututako akordioetan Nafarroako gobernuaren inguruan. UPNren eta PPren arteko haustura hainbat hilabete geroago gertatu zen.

Normalizazioaren helburua lortzeko eta izan berri dugun esperientzia ikusita, EAK berretsi egiten du, III. eta IV. Biltzarretan onartutakoari jarraiki, nazionalismo aurrerakoi eta ezkertiarren ekintza-batasuna bultzatzeko borondatea, soil-soilik bide zibil, baketsu, politiko eta demokratikoetan oinarrituta aurreratzeko gehiengo soziala lortzeko, sentsibiltate desberdinak bilduta eragiteko eta gobernatzeko gai izango dena.

Egoera berri horren aurrean, estrategiak berrikusi eta eguneratzeko eskatzen du gehiengo sozial abertzaleak, alderdi, eragile eta gizarte-mugimendu abertzaleen artean indar-metaketa martxan jartzeko Euskal Herriaren prozesu soberanista bultzatzeko, baita aurrerapauso praktikoak ere euskaren ezagumendu ofizialari dagokionez eta Euskal Herri osorako erkideak izango diren erakunde politikoak, ekonomikoak, kulturalak, sozialak eta abar egituratzeko. Horretarako, EAK esparru politiko abertzale eta aurrerakoa bultzatuko du, beste alderdi independentista batzuekiko integrazio zabaleko eredu bati jarraiki, eta betiere alderdi horiek indarkeriaren estrategiarekin inolako harremanik ez badute, balio erkide batzuk konpartituta, hainbat oinarriren gain, hala nola giza eskubideen defentsa, justizia soziala, garapen iraunkorra, genero-berdintasuna, austeritatea eta gardentasuna baliabide publikoen kudeaketan, gizarte-ekonomiako enpresentzako eta ETEentzako laguntza, militarismoa arbuiatzea eta parte-hartze soziala eta demokrazia parte-hartzailea sustatzea, betiere alderdi gisa dugun nortasun propioa atxikita.

Helburu nazionalak zehazteko egiten diren ahalegin guztien egituratzea lortzeko, lankidetzaren eta parte-hartzearen areagotzea egin behar da bertako euskaldunekin eta diasporako kide diren euskaldunekin, Euskal Etxeetako kide edo munduko euskal herritar direla ere. Ildo horretan, munduko euskal lobby bat eratzea ahalbidetuko da

## **6. Baketzea**

Normalizazioaren bigarren osagaia zera da, elkarbizitza baketzea, indarkeriaren modu eta adierazpen guztiak errotik kenduz eta giza eskubideak oso-osorik errespetatuz Aldarrikapen Unibertsalaren edukiei jarraiki, eta horretarako ezinbestekoa da ETAREN desagertzea.

Helburu hori lortzeko ahalegin guztiak egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta gure esku dauden bitarteko guztiak erabiltzekoa, behar den baketze-prozesua ahalbidetzeko.

Zenbait bake-prozesuk porrot egin dute azken hamarkadetan. Kolapso horrek giza eskubideen urratze onartezinak eragin ditu ETAk negoziazio politikoen protagonista izateko agertu duen nahia dela-eta. Baina Espainiako Gobernuaren eraginkortasunik eza nabarmendu eta salatu behar da neurriak hartzeari dagokionez, antzeko beste bake-prozesu batzuekin alderatuta. Egia da, halaber, bake-prozesuak luzeak direla, eta hainbat gorabehera izan ohi dituztela bidean.

Euskal Herriko bake-prozesuak indarkeria-maila izugarri handi bati egin behar dio aurre, baina hori ez da arazo bakarra. Izan ere, ideologiek ere talka egiten dute elkarren artean, eta, horren eraginez, zenbait gatazka desberdin lotu egiten dira —“historiaren korapiloak”—, eta horiek guztiak banan-banan askatu behar dira, eta ez beti solaskide berebereri esker. ETAk “bere” korapiloa askatu behar du, bai, baina herria ordezkatzeko duten erakunde demokratikoei dagokie normalizazio politikoari eragiten dioten gainerako korapiloak askatzea.

Atzeratze-fasean dagoela esatean lanean aurrera jarraitzeko erabaki irmoa nabarmentzen ari gara, elkarrizketaren eta negoziazioaren bitartez prozesua berriz ere ireki eta aurrera eramateko. Konponbidea soil-soilik neurri polizial eta judizialen esku uztea akatsa da, gure herriaren normalizazio politikoa lortzea zailduko duen akatsa.

Nolanahi ere, prozesuari berriz ere heldu aurretik, izan berri dugun esperientziaren ondorio positibo eta negatibo guztiak aztertu eta kontuan hartu behar dira.

Besteak beste, alderdi positiboen artean honako hauek azpimarratu behar dira:

- Gobernu espainolaren hasierako inplikazioa eta prozesuaren alde egindako apustua, “elkarrizketa” hitza aipatzea ere debekatua zegoen testuinguru politikoan.
- Normalizazio politikoaren eta Bake-mahaiaren arteko bereizketa teorikoa; Bake-mahai horretan, gainera, giza eskubideekin zerikusia zuten beste hainbat gai aztertu behar ziren.
- Giza eskubideei dagokienez, politikak zentraltasunean irabazi du, batetik, arlo instituzionalean, EAk Bake eta Bizikidetzaren Planari emandako bultzadari esker, eta,

bestetik, eragile politikoen diskurtsoari eta gizarte-talde antolatuen arteko eztabaidari dagokienez.

- Euskal Gizarteak erronka korapilotsu eta zailei —hala nola terrorismoaren biktimen errekonozimendua, presoen sakabanatzea, frankismoaren biktimen memoria berreskuratzea eta abar— heltzeko ahalmena baduela erakutsi du.

Alderdi negatiboen artean, berriz, honako hauek nabarmendu behar dira:

- PSE/PSOEak eta Batasunak prozesua monopolizatu dute, eta bere neurrian EAJk ere bai PPren aurkakotasun erreakzionarioarekin, prozesu orok Gizarte osoa eraginpean hartu behar duela eta Autonomia Erkidegoko gainerako Alderdi eta Erakundeak bazter utzita prozesuak fruitu emankorrik eman ezin dezakeela ahaztuta.
- ETAk arduragabe jokatu du, su-etena hautsi duelako presioa eragiteko, eta hori ezin daiteke inola ere onartu hainbat arrazoiengatik, eta gainera ez du ezertarako balio ikuspegi politikotik begiratuta, ez baitagokio ETARI helburu objektiboak eta baldintza politikoak ezartzea herrialdearen etorkizunari dagokionez, ez baitu horretarako legitimitate politikorik.
- Prozesua gidatzerakoan monopolioa eta protagonismoa uztartu dira, eta horrek krisialdietan aktibatu beharreko mekanismo instituzional eta sozialak geldiarazi ditu. Ilusorik eta parte-hartze sozialik sorrarazten ez bada, prozesuak berak sorrarazten dituen tentsio normalak gainditzeko, bake-prozesu horrek ezin du inola ere aurrera egin.
- Oztopoak jarri ditu prozesu guztian botere judizialak, jarduera politiko osoa judizializatuz
- Komunikabide jakin batzuen beligerantzia, neurrirasuna eta distentsioa ekarri beharrean, sumin sozial eta politikoa piztu baitute, eta hori beti izaten da gehitutako zailtasuna horrelako prozesuetan.

Ondorioz, eta etorkizunari begira, 1988ko, 1998ko eta 2007ko azken prozesuen akats eta esperientziak kontuan izan behar dira, prozesu berri baten irekiera eta aurrerapena ahalbidetuko duten baldintzak sortu behar dira, besteak beste, gizartean esku hartzeko eta gai delikatuei heltzeko tresnak, baita ingeniaritza politiko-konstituzionaleko alderdiak ere, eztabaidak zehaztu eta eramangarriagoak egiteko. Azken batean, bidea prestatu behar da, eta



aukera berriak interes partidistak direla-eta alferrik gal daitezen galarazi behar da. Bien bitartean, EAK eta alderdiko afiliatu bakoitzak, herriz herri, egoera gertu-gertutik jarraitu behar du bakearen izenean eskubide eta askatasunak murriz ez ditzaten, indarkeria fisiko eta juridikoaren adierazpen guztiak errotik kenduz.

### III. SOZIALDEMOKRAZIA GAUR EGUN

#### 1. Oinarriak eta erronkak

Sozialdemokraziaren ildo nagusi horiek indarrean jarraitzen dute, baina une honetan sakonetik aztertzen ari dira terminologiari eta edukiari dagokienez. Eta hori bereziki probatutako ereduaren esperientziatik eratortzen da, baita zenbait fenomenok —hala nola immigrazioak, globalizazioak, deslokalizazioak, garapen iraunkorrak, garatzeko bideak dauden sektore ekonomikoek, klimaren eta energia-ereduaren aldaketak eta energia-eskasiak— berekin dakartzaten eskakizun berriei ere, faktore horiek guztiek bizi-kalitatearen ikusmolde berri bat eratzen baitute, esamoldearen zentzu zabal eta egungoenean.

Nolanahi ere, Sozialdemokraziaren egungo zehaztapenak edo adierazpenak edozein izanik ere, argi eta garbi utzi beharra dago politika sozio-ekonomiko aurrerazalea aurrera eramateko behar-beharrezkoa dela politika hori bideragarri egingo duten oinarri politiko eta ekonomikoak edukitzea, eta horrek esan nahi du, batetik, egitura politiko independenteak edukitzea, botere ekonomiko, finantzario eta fiskal propioekin, eta, bestetik, helburu horiekin bat egingo duten egitura ekonomikoak eta industria- eta enpresa-sarea izatea.

#### **A.- Oinarri politiko eta ekonomikoak**

Autodeterminazio bidez molde errepublikarreko Estatu independentea eratzeko asmoa asmo politikoa da, baina ezinezkoa da oinarri sozial eta ekonomikoetatik bereiztea, oinarri horiek xede horren eramangarritasuna eta bideragarritasuna bermatuko dutelako.

Ez da botere-kontua bakarrik, bitartekoak ere jarri behar dira. Horren haritik, mugimendu politikoek ez dute bakarka aurrera egin behar, gizarte-laguntzaren oinarriaren gainean baizik, betiere horri eusteko ezinbesteko “oinarri” ekonomikoa erakarriz edo prestatuz. Horren haritik aipatzekoa da gizartea eta ekonomia finkatzeko prozesua, Sindikatu, Enpresaburu, Kutxa eta Finantza-entitate, eta Oinarrizko industria eta Aseguru-industriak oinarriztat hartuta, Quebeceko ekimen politikoei laguntzeko sare gisa.

Berriz ere adierazi nahi dugu EArentzat autodeterminazioaren helburuak ez diela nortasun-aldarrikapeneko nahi soilei erantzuten, Euskal Nazioaren legezko eskubideak lortzeari begira. Autogobernu handiagoa eta hobeak edukitzeko nahia gure ideal demokratiko eta sozialen zerbitzuan dago, herritar guztien eta herritar bakoitzaren zerbitzuan. Gure nazionalismoa zibikoa eta soziala da, ongizatea eta parte-hartze politikoa ahalbidetuko dituen Estatu bat sortzera zuzendutakoa, hau da, pertsona ardatz duen Estatu demokratiko bat, giza mailako zerbitzu publikoa emango duena.

Euskal Herria kokatuta dagoen Estatu espainolaren eta frantsesaren antolamendua zaharkitua eta motela dela esan dezakegu, egungo erronkei erantzuteko desegokia.

Estatu txikiek, berriz, botere eta askatasun handiagoa dute. Haietan, zerbitzuak hobeto dimentsionatu eta administratzen dira, gizarte-arreta egokiak eskaintzen dira eta aberastasuna oreka handiagoz banatzen da. Gainera, langileek prestakuntza eta kualifikazio hobeak dituzte, eta, beraz, estatu txikiek eskakizun berriei erantzuteko neurri ezin hobeak dutela esan dezakegu.

Estatistikek eta Europako eta nazioarteko errealitateak aditzera ematen dutenez, herrialde lehiakorrenak dagoeneko ez dira handienak, baizik eta, Euskadi bezala, sare instituzional, ekonomiko, sozial, finantzario, kultural eta enpresarialeki ongi lotuta daudenak, horrek erantzun bizkor eta eraginkorrak emateko bide ematen baitie berrikuntza teknologiko eta enpresarialaren eta hezkuntza-berrikuntzaren etengabeko erronka eta aldaketan aurrean.

Mundura zabalduko eta munduari lotutako Herrialdea osatzen dugun neurrian, gure jardun-lehentasunak, inbertsioak eta berrikuntza erabakitzeke gauza izan behar dugu, nola gurearen barnean, hala Europan eta nazioartean.

Ikuspegi sozial batetik, zenbait arlotako politikak (gizartea, enplegua, ongizatea) garatu behar ditugu, baita familien segurtasuna bermatu eta zerbitzuak hobetu ere, eredu kooperatiboa eta gizarte-ekonomia indartuz, baita enpresen lehiakortasuna ere, sistema ekonomiko eta finantzario propio batekin. Gainera, alderdi sozialdemokrata garenez, gure herrialdeko langileen eskubideen defentsak lehentasuna eta suspergarria behar du sindikatuekin lankidetzan aritzeko, sindikatuak erreferentzia historikoak baitira lan-eskubideak eta gure herrialdean ongizate handiagoa lortzeko.

Horretarako, Euskal Herria aske eta independentea nahi dugu. Hartan, Euskal Erakunde Nazionalak Ekonomia antolatu eta planifikatuko dute, antolatutako merkatu-ekonomiaren ereduari jarraituz, jabetza pribatuarekiko eta enpresa-askatasunarekiko errespetuarekin orekatuta herritarren mesedetan, aberastasuna behar bezala banatzea ziurtatzen duten politiken bidez.

Independentzia politikoa bideraezina da independentzia eta nahikotasun ekonomikorik gabe, edo baliabiderik gabe. Horrek, gainera, produkzio-oinarri ekonomikoak eskatzen ditu, finantza-sistema kaudimenduna, eta horretarako **Kreditu Nazionalako Erakundea** sortu behar da, Euskal Aurrezki Kutxak fusionatuzetik, agian.

**Euskal Ogasun Nagusiari**, baliabideak herritarrengandik jasotako zergetatik lortzen dituen erakundea den aldetik, helburu laukoitza esleitu behar zaio: diru-sarrerak zerbitzu publikoen bidez itzultzea, aberastasunaren banaketa soziala, iruzur fiskalaren aurkako borroka eta elkartasuneko eta iraunkortasuneko printzipioei erantzuten dieten politika ekonomiko harmonikoak garatzeko bermea, **Zerga Politika** iraunkor eta aurrerakoi baten euskarri gisa.

Tresna multzo horren bitartez, Ongizate Gizartea indartu behar da, eta Euskal Erakunde Nazionalari dagokio **Euskal Gizarte Segurantzaren Erregimen Publikoa** behar bezala administratzea. Sistema horrek, gainera, pentsiodunentzako gizarte-laguntza eta kotizaziopeko gizarte-prestazioak berma daitezen zaindu behar du, baita kotizazio gabeko prestazioei eta gizarte-laguntzei dagokienez ere, premia-egoeretan.

Zerrenda luze horretan, **Enplegu** duinaren bermea ere lortu behar da **Lan Harremanen** esparru propio batean legegintza-ahalmena egikarituta, izaera bereko Funtzio Publikoaren eta Langileen estatutu batzuen egituratzailea, lanerako eta laneko eskubideen egikaritzapenaren unibertsaltasun-printzipioa estatutu horietan finkatuta

## **B.- Erronkak**

Sozialdemokrazia historikoak oso jatorri eta norainoko zehatzak ditu, baina dagoeneko kontzeptu hori nahiko urratua edo gastatua dago, eta “ezkerreko mugimenduak” esamolde

orokorragoa gero eta gehiago erabiltzen da zenbait joera biltzeko, ezkerreko liberalismoa barne.

Sozialdemokrazia historikoaren arrakasta Ongizate Estatuaren esparruan garatu zen, sozialismo iraultzailearen gizarte-lorpenak europar demokrazietara hedatu zirelako mugimendu komunistak langileen klasean eragin zezakeen sedukzioa saihesteko. Komunismoaren beldurretik babesteko jarrera politikoa izan zen, eta, gaur egun, behin komunismoa desagertu ondoren, Ongizate Gizartea zalantzan jartzen hasi da, horren helburuen bideraezintasun ekonomikoa aipatuz krisialdiaren arrazoi gisa. Izan ere, 1970etik aurrera, administrazio-antolamenduaren eta arlo ekonomikoa arlo politikoaren gainetik lehenestearen aldeko zenbait teoriko Ongizate Estatuaren ereduak erasotzen hasi ziren, eta prozesu hori bizkortu egin zen Thatcher-en eta Reagan-en garaietan 1980tik aurrera, gizarte-politiken gainkostua argudiatuta, Estatuak gizarte-zerbitzuak emateko baino gehiago diru-mozkinak lortzeko enpresa izan behar zuela kontuan hartzen zuen oinarriaren gain. Sozialismo errealearen ondorengo erorketa tesi horien gaineko garaipentzat eta Komunismoaren eta Sozialdemokrazia historikoaren gaineko liberalismoaren garaipentzat interpretatu zen, modu interesatuan.

Egungo sozialdemokraziak, ezkerreko mugimendu denez eta edozein izen duela ere, ez du amore eman behar planteamendu horren aurrean, aurka egin behar die postulatu neoliberal horiei eta tinko eutsi behar du Ongizate Estatuaren defentsan, filosofia eta borondate politikoarekin lotutako gaia baita, argumentazio ekonomikoekin lotutako gaia baino. Sektore publikoaren aldeko hautua da, eta liberalismo ekonomikoari eta horren funtzionamendurauei egin nahi die aurre.

Sozialdemokrazia modernoak erantzun politikoa eman behar die globalizazioaren, immigrazioaren eta iraunkortasunaren fenomeno berriek berekin dakartzaten erronkei, hori guztia berdintasunaren, gizarte-aurrerapenaren eta ahalmen kritikoa berreskuratzearen funtsezko oinarrietatik abiatuta.

**Globalizazioa** fenomeno atzeraezina da, eta kategoria politiko, sozial eta kulturaletatik baliatu eta gidatu behar da, ez soilik kategoria ekonomikoak aintzat hartuta. Txiki geratu den mundu honetan, trukeen abiadura azkartzea dakar egungo globalizazio-ereduak, eta horrek

kapitaletan, salgaietan eta pertsonengan eragiten du, teknologia berriak agertzearen ondorioz, kultura- eta politika-esparruetan ere izan ditzakeen ondorioak bazter utzi gabe..

Merkatuak ireki ahala pertsonen trukeak gora egin du, eta horrek zenbait fenomeno ekarri ditu berekin: **immigrazioa**, **deslokalizazioa** eta abar. AEBetan, Txinan edo Errusian hainbat tresnaren bidez —hala nola G8a, G-20a, MBa edo NDFa— sortutako Lege eta araudi ekonomikoek arautzen dituzten egoera berri horiek gizarte- eta ekonomia-desberdintasunak izugarri areagotzen ari dira; Historian orain artean sekula gertatu ez den bezala

Fenomeno berri horien aurrean, sozialdemokrazia berriak honako hauei erantzun behar die:

1. Politika berriz ere ekonomiaren gainetik nagusi dadila proposatzea, baita Administrazio Publikoaren erreforma ere.
2. Globalizazioak pobrezian eta gorantz doazen desberdintasunetan eragiten dituen ondorioak arintzea.
3. Immigrazioaren errekonozimendua, gizarte-eragile berria den aldetik, berdintasun- eta duintasun-irizpide zorrotzei jarraituz, integrazio kulturala eta soziala bultzatuz.
4. Aurrerapena hazkunde ekonomiko soilaren kontzeptua gainditzea, gizarte- eta banatze-zentzua berreskuratuz, baita ingurumen-arloan iraunkorra izatearekin lotutako zentzua ere.
5. Ahalmen kritikoa berreskuratzea, ikusmolde ekonomizista hutsen uholdearen aurrean.
6. Ongizate Estatua babestea, Erakunde eta Botere Publikoetako gure ordezkarien printzipio politiko eta jardun-filosofia gisa, elkartasun- eta ekitate-helburuak lortzeko.
7. Helburu horiek lortzeko, europarrak garen aldetik eta europar esparruan jardunda, Europan alternatiba politikoa sortuz aipatutako potentzia handiek globalizazioari eta immigrazioari ezarri dioten ikuspegi ekonomiko soilari aurre egiteko, ekonomia globalaren ikuspuntu ekonomiko soil-soilik espekulatiboaren ondorioz.
8. Gizarte berdintasunezkoagorantz aurrera egitea, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna eta kolektibo behartsuenen diskriminazio positiboa bermatzen dituzten politikak bultzatuta.
9. Herritarren parte-hartzea ahalbidetzea gizarte zibilaren bidez.

10. Eredu kooperatibo bat eta gizarte-ekonomiako beste enpresa-formula batzuk sustatzea.
11. Nazioarteko eta belaunaldien arteko Iraunkortasunaren eta Elkartasunaren aldeko gure konpromisoa berrestea, mundu orekatu eta solidarioagoaren aldeko apustua eginez arlo sozialean, kulturean, ekonomikoan eta ingurumenari lotutakoan.

## 2. Krisialdi ekonomikoa eta Ongizate Estatua

Azken Biltzarrean aipatzen genituen oinarri eta erronka horiek balio eta garrantzi berezia hartzen dute egungo unean, krisialdi ekonomikoak agerian utzi duenean desberdintasun sozial handiak eragiten dituen egoera ekonomikoak berme gisa dituen oinarri ideologikoen ahulezia praktikoa, eta, diskurtso ofizialarekin kontraesanean, eraginkorra ez dena, eta ez ikuspuntu sozialetik begiratuta soilik, baita ikuspuntu soil-soilik ekonomikotik begiratuta ere.

Inolako kontrolik gabeko merkatuan oinarritutako eta aurrerabidearen ordezkaz hazkundera oinarritutako eredu neoliberalaren bultzadaren ondorioz, betiere kalitatearen gainetik kantitatea lehenetsita eta pertsonen gainetik magnitude makroekonomikoak lehenetsita, hesi soziala areagotu duen eredu ekonomikoan gaude gaur egun, aberastasunaren banaketa gero eta asimetrikoagoa egin da birbanaketa geldituz, eta azkenik ekonomia espekulatiboa lehenetsi eta indartu da, ekonomia produktiboaren, ekonomia errealekoaren, kaltetan.

Izan ere, burbuila finantzario eta inmobiliarioak lehertzearekin batera, ekonomia espekulatiboaren erreferentzia eta motor bilakatutako arlo horien lehertzearekin batera, ikusi ditugu krisialdi ekonomikoaren ondorio larrienak: langabeziaren hazkundera, hazkunde-tasen murrizketa progresiboa atzeraldira iritsi arte, finantzaketa-ildoen murrizketa drastikoa ekonomia errealeko eragileentzat, batez ere ETE, autonomo eta familientzat.

Egoera horren aurrean, ereduaren porrota onartzetik urrun, diskurtso neoliberalak birmoldatu da, kapitalismoa birsortzeaz ari da zenbait jende hitz egiten eta ereduaren ezinbesteko gutxienekoa aldatu nahi duten neurriak bultzatu nahi dira berriz ere, guztiak berdin jarrai dezan. Gizarte-zerbitzuen bideragarritasuna zalantzan jartzen da, murrizketak planteatzen dira zerbitzu horien estalduretan,

kaleratzearen doakotasuna planteatzen da, lan-prekarietatea sendotu nahi da, pentsioen sistema publikoa zalantzan jarri nahi da, eta abar. Gizarte-gastuari eta krisialdiaren ondorioei aurre egiteko baliabide publikoen eskasiaren diskurtsoarekin batera, diru-sarrera publikoen gutxitzea planteatzen da zergak behertzeko politika fiskalekin, batez ere kapital-errentei eta errenta altuei dagokienez.

Eusko Alkartasunan gabiltzanok planteatzen dugu krisialdi ekonomikoari eman beharreko erantzuna ezin dela oinarritu krisialdi hori eragin duen sistemaren indartzean, baizik eta eredu-aldaketa bat bultzatu behar dela, sozialdemokraziaren oinarri ideologikoetan bermatuta pertsonak ardatz dituen kalitate-hazkundeak dakarren aurrerabide-ideia berreskuratzeko premia urgenteari aurre egin diezaion gizarte bidezkoago eta kohesionatuago bat lortzeko helburuan, non pertsona guztiek berdintasunean izango duten zerbitzu publikoak baliatzeko aukera, eta haien bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna bermatuko den.

Euskal Herria libre, errepublikar eta independente bat lortzeko azken helburua Ongizate Estatuaren indartzea bermatuko duen sistema ekonomiko eta politikoa soilik posible dela biltzen duen gure konbentzimendutik, garrantzi berezia du mundu osoko krisialdi ekonomikoko une hauetan gehiengo politiko eta sozial abertzale eta aurrerakoia egituratzeak, Euskal Herriko erakundeen multzoaren ekintza politikoa bideratuko duena jardun jakin batzuen bultzadaren bidez, gure Herrialdean krisialdirako konponbideak planteatu eta gure ekonomia egungo egoeratik lehenbailehen ateratzeko prestatuko dutenak Ongizate Gizartea, garapen iraunkorra, enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea, gure ekonomiaren aurrerabidea eta gizarte-kohesioa indartuta. Era berean, eta sistemaren muina denez, azterketa sozialaren mende egon behar du finantza-sistemak, araudi zorrotzaren eta botere publikoen kontrolaren bidez.

Helburu horiek lortzeko lehentasunezkoztat planteatzen ditugu Euskal Herriko erakunde publikoen multzotik garatu beharreko honako jardun-ildo hauek.

- Gizarte-eskubideak eta pertsona eta familiei dagozkien prestazioak bermatzea: Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Etxebizitza.
- Azpiegitura sozialetako (eguneko zentro eta zaharrentzako egoitzak, ikastetxeak, osasun-zentroak, eta abar) inbertsio publikoak bultzatzea, enplegua sortzeko



helburu bikoitza estaliko dutenak —eraikitzen edo egokitzen diren unean zein martxan hasten diren unean— eta Ongizate Estatuaren gizarte-zerbitzu propioak indartzea.

- Gizarte-gastuko politika gizarte-ongizate eta -kohesioko bitarteko edo enplegu egonkor eta kalitatezkoaren tresna sortzaile gisa pentsatutakoa, baita ekonomia suspertzeko ere, zuzeneko jardunen zein gizarte-ekimenarekin itundutako jardunen bidez.
- Funtsezko zerbitzu publikoen eta bereziki gizarte-zerbitzuen esternalizazioa gelditzea.
- Euskal sindikatuekiko elkarrizketa- eta lankidetzaz-berreskuratzea, kontzertazio sozialeko eredu berri bat ahalbidetuko duena, Ongizate Estatuaren indartzeko politika berrien bultzadari ekiteko aukera emango duena, elkartasun-ahaleginak enplegu-kalitateko politiketarantz aurrera egiteko, kaleratze librea ezabatzea, jarduera-sektoreen eta lan- eta funtzionario-kontratazioko dagozkien ereduaren artean gaur egun dagoen eta handitzen ari den hesi soziala murriztea, gizarte-kohesioa indartuta.
- Progresibitate errealaren printzipioaren eta iruzurraren aurkako borrokarako konpromiso efektiboaren oinarriaren gaineko ongizate-estatuaren bideragarritasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren diru-sarrerak bermatuko dituen politika fiskaleko eredu berria, aberastasuna birbanatzea ahalbidetuko duena elkartasun-printzipioa gauzatuz, eta laguntza eskainiko diona aurrerabide ekonomikoko eta ekonomia produktiboaren garapeneko politikari.
- Austeritate-politikak gastu publiko korrante ez-emankorrean, arrazionalizazioan eta eraginkortasunean oinarritutakoak, Lurralde Historikoen Legea berrikusteari eta Udal Legea abiarazteari lotutako esparruan bildu beharrekoak.
- Lan-harremanen helburu propioan aurrera egitea eta lan-politika propioak bultzatzen jarraitzea, prekarietateari eta ezbehar-tasari aurre egingo diotenak, enpleguaren kalitatean ere aurrera eginez.
- Inbertsioak indartzea eta ingurumen-politikak sustatzea, iraunkortasunean aurrera egitea eta herritar guztientzat bizi-kalitatea lortzea ahalbidetuko digutenak.
- Berrikuntza- eta Ikerketa-politikak sendotzea lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko.

- Ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-arloko iraunkortasun-parametroetan oinarritutako gizarte-eredu bat lortzeko helburuarekin uztartzen diren lurralde-antolamenduko, hirigintzako eta azpiegituretako politikak.
- Zehazki, gure herrialdeko lurraldearen eta ogasun publikoaren antolamendu egokia, horren bidez azpiegitura jakin batzuk kokatzeko garaian sortzen diren eztabaida probintzialista antzuak gainditzeko aukera izan beharko genuke, hala nola Euskal Herriaren intereserako diren portu eta aireportuak kokatzeko garaian. Salgai eta bidaiarien lehentasunezko garraiobide izan dadin trenaren alde egindako apustuak errepideen garapena eusteko politika izan behar du trukean.

#### IV. EGITURATZE INSTITUZIONALA

Biltzar Nagusien Ponentzia guztietan Lurralde Historikoen Legeak ezarritako eredu instituzionala aldatu beharra aipatu da; alabaina, orain artean ez da inolako aurrerapenik atzeman horri dagokionez.

Foru Aldundiek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Espainiako Legeak onartzen dizkien ahalmenaren babesean, eta Kontzertu Ekonomikoaren arabera beren aurrekontuetan dituzten baliabide ekonomiko ugariak baliatuta, Eusko Jaurlaritzarekin lehian sartu dira Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde erkideen eskumenekoak diren gaietan, eta zerbitzu-bikoiztasunak gertatu dira, eta horien ondorioz, baliabide ekonomikoak xahutu egin dira hainbat arloekin lotutako gaietan, hala nola enplegua, industria-politika, zenbait gizartegai (oinarrizko errenta eta ordaindutakoaren arabekoak ez diren prestazioak, etxebizitza eta abar), eta hori horrela, Foru Aldundiek aurrera eramandako jardun horien aurka dagoela adierazi nahi du berriz ere Eusko Alkartasunak, eta premiazkoa iruditzen zaiola Lurralde Historikoen Legea aldatzea eta eguneratzea.

1998-2002 legegintzaldirako EAJ-EA Gobernu Itunean, esanbidezko honako Konpromiso hau hartu zen: LHL legearen disfuntzionaltasunak zuzentzea eta lege hori berraztertu eta aldatzea. Ondoren, gaiak indarra galdu zuen, tamaina handiagoko kezkak agertu zirelako, hala nola Estatutu Politiko Berriaren Proiektua, Kontsulta Legea edo normalizazio politikoa.

Denborak aurrera egin ahala ahazten ari gara gai hori Eusko Alkartasunaren sorrerarekin amaitu zen krisi politikoaren eragile garrantzitsua izan zela, baita alderdiaren nortasun-ezaugarri nagusietako bat eta aldarrikatzen dugun eta lortu gura dugun nazio-erakuntzaren giltzarrietako bat. Kontua ez da, batzuetan aurkeztu den bezala, eredu zentralizatua edo deszentralizatua edonola hautatzea. Hori ondorengo administrazio-ereduari dagokiolako. Gaia politikoa da, eta ez administratiboa. Egungo Erakunde eta Botereekin ezinezkoa da Nazioa edo Estatua sortzeko asmoari eustea, etengabe lehian eta etengabe higitzen ari diren probintzia- edo lurralde-nahiek Erakunde eta Botere horiek ahuldu egiten dituztela aintzat hartuta.

Konstituziogintzaldian, Autodeterminazio-eskubidearen errekonozimenduak porrot egin ondoren, autogobernu-errebindikazioak eskubide historikoen errekonozimenduan babestu ziren, ez Foru Lurraldeak indartzeko, Euskal Herriaren eskumen eta eskubideen erreserba-funts osagarriaren antzera baizik, gaur egun Estatutuaren xedapen gehigarrian jaso den bezala. Orduan inork ez zuen zalantzan jarri titulartasuna, berritze subjektiboaren prozesuaren bitartez, Foru Lurraldeetatik Autonomia Erkidegoan eratutako Euskal Herrira eta horren ordezkari-erakundeetara —Legebiltzarrera eta Jaurlaritzara— eskualdatzen zenik.

EArentzat ezinezkoa da ideia eta planteamendu horiek bazter uztea nazio-inkoherentzian erori gabe. Ideia horiei indar berria eman behar zaie, hain zuzen ere kontuan hartuta une jakin batzuetan asmo oneko ekimen jakin batzuk, amnesia historikoa dela medio, egungo maila instituzionalak ere ahultzeko lagungarri gerta daitezkeela.

Une honetan zenbait ekimen aztertzen ari dira fiskalitateari buruzko foru-arauak “blindatzeko”, arau horiek Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan behin eta berriz aurkaratzen ari direla, eta Konstituzio Auzitegiaren eraginpean jartzen ari direla aintzat hartuta. Besteak beste, Batzar Nagusiei eskumena emateko aukera aztertzen ari da, arau horiei lege formalaren maila eman diezaieten (Lurralde Historikoen Legeak Eusko Legebiltzarrari soilik esleitzen dio eskumen hori).

Helburua laudagarria bada ere, prozedura ezin da inola ere onartu, hain zuzen ere haustura ekarriko lukeelako (eta, jarraian, haustura-kate luzea), kanpo-mailan Nazio Erakundeak eta Lurralde Erakundeak bereizi eta nabarmentzea ahalbidetzen duten printzipio gutxietako batean.

Badira beste mekanismo batzuk, aldez aurretik probatu direnak, eta horiek erabiliz emaitza berberak lor daitezke eredu instituzionala gehiago higitu gabe. Zehazkiago, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Legea Eusko Legebiltzarraren ia-ia berrespena izan zela esan dezakegu, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek onartutako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako legeria zibilar dagokionez. Formula hori, ñabardura bereziak dituen arren, baliagarri izan daiteke konponbide egokia bilatzeko, Eusko Legebiltzarraren nagusitasuna zertan ahuldu gabe.

Ondorio gisa, berriz ere aldarrikatu nahi dugu Euskal Autonomia Erkidegoaren antolamendu instituzionalaren proposamena planteatu beharra aurreko Biltzar Nagusietan (IV.ean eta V.ean, bereziki) jasotakoaren ildotik, udal-maila txertatuz, euskal nazio-erakuntza erraztuko duen antolamendu-testuinguruan, eta gainerako ekimen guztiak, justifikatuta egonagatik ere, zeharo onartezinak direla adieraziz, baldin eta Eusko Legebiltzarrak onartutako egungo eskumen-mailen murrizte formala edo materiala badakarte. EAK Udal Lege baten premia urgentea berresten du, eta hori lortzeko duen konpromisoa berritzen du.

## V. LURRALDE OSOTASUNA

Euskal Herria batu bat eratzea, Nafarroak, Iparraldek eta egungo Euskal Autonomia Erkidegoak osatua espazio politiko bakarrean, estatu propio bat osatzeari begira Europar Batasuneko gainerako estatuekin homologatzeko moduan, asmo ukaezina da EArentzat. Nolanahi ere, esan beharra dago helburu hori modulatu egin behar dela Nafarroari eta Iparralderi dagokienez, egoera politiko eta errealitate soziologiko bereziak dituztela eta azken batean bertako herritarren borondatea errespetatu beharra dagoela aintzat hartuta. Herrialde guztiak Euroerregio edo Euroeskualde batean biltzea mesedegarria izango da esparru politiko bateratua sortzeko.

Egoera politiko eta sozial berezi hori zuhurtziaz errespetatzeko planteamendu hori aurreko Biltzar Nagusi guztietan egin da, eta gaur egun ezer gutxi erantsi dakiok, salbu eta, itxaroten egon beharrean, ekintzari heltzeko momentua iritsi dela, ahalik eta baldintza aldekoenak prestatzeko erabakia gure nahien araberakoa izan dadin lortzeko.

Horren haritik, EAK beharrezko politika instituzional, kultural eta sozialak berraktibatze konpromisoa hartu du, gero eta euskal herritar gehiagok parte hartu eta aurrera egin dezaten nazio Komunitate berezi baten kide eta horri datxezkion eskubideen jabe direlako autokontzientzian.

Helburu hori lortzeko Udalbiltzak egiteko garrantzitsua behar du, udal-oinarriko instituzio nazional gisa, herrialde guztietako udal-hautetsiak, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak, bilduko dituen. Eusko Alkartasun gabiltzanok beharrezkoak diren ekimen guztiak garatuko ditugu Udalbiltzaren hasierako espiritua berreskuratzeko, egungo zatiketarekin eta izen hori erabiltzen duten zenbait elkarteren kudeaketa eteteko, ez baitiete hasierako helburuei erantzuten eta erabat ez-eraginkorrak direlako helburu horiek lortzeko.

Ikuspegi instituzionaletik eta politikotik, behar-beharrezkoa da itunen, akordioen eta lankidetzaren instituzionalaren ekimenei berriz ere heltzea Nafarroaren eta EA Eren artean, baita Iparralden egiten ari diren ahaleginei babes ematea ere, administrazio- eta departamentu-batasun propioa eratze eta Autonomia Estatutu berezia lortzeko, Iparralderen autogobernua garatzeko eta Hegoaldearekiko harreman instituzional zuzenak ezartzeko oinarria den aldetik.

Gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren eremuei dagokienez, aurrera jarraitu behar dugu lankidetzaren estrategikoen politikarekin, hurbiltze soziologikoa eta bizipen konpartituak erraztuko dituzten programak lantzeko, bizikidetzaren politikaren oinarri gisa autogobernu komunaren esparru batean.

EAK bultzatutako NAFARROA-BAI koalizioak hauteskundeetan lortutako arrakastak ere aipamen berezia eta itxaropentsua merezi du. Udaletan lortu duen ezarpen instituzionalaren ondorioz EAeko eta Iparraldeko gainerako lurraldeekin lankidetzaren tresnak aktibatu ahalko direlakoan gaude. Erakundeetan eta politikan lortu duen presentzia aprobetxatu beharra dago itunak eta lankidetzaren esparrua berraktibatu edo berreraikitzeke, eskuin nafarraren nagusikeriak horiek guztiak etenarazi zituela aintzat hartuta, PSNren konplizitate lausengari etsikorrekarekin.

Nafarroa Bairen adibideak baliagarria izan behar du Iparralden garatu beharreko estrategia zehazteko, “Euskal Herria-Bai” proiektuan oinarrituta. Hala, EAren ordezkariak presentzia aktiboagoa izan behar du mota guztietako ekimen politiko eta kulturaletan. Azken horren haritik, ALKARTASUNA FUNDAZIOAK bere kultura- eta prestakuntza-jardueren zati bat Iparralden, eta Nafarroan eta Diasporan egiteko konpromisoa hartu du.

Lurralde-osotasunari buruzko atal hau ez litzateke osoa izango Trebiñuko eta Turtziozko enklabeak aipatzen ez baditugu; Autonomia Erkidegoan sartzeko duten eskubidea — esanbidez aurreikusitakoa Estatutuaren 8. artikuluan— Estatuak berak eragozten eta oztokatzen baitu 1980az geroztik. Horri dagokionez, EAK ez ditu soilik estatutuaren ez-betetzea eta jarritako legeen bidezko eta Auzitegi Konstituzionalaren permisibitatearekin aurrera eramandako Estatutuaren edukien zeharkako indargabetzea soilik salatzen, eta enklabe horietako biztanleen eta bertako udal-erakunde ordezkarien borondate argi eta garbia errespetatu dadila eskatzen eta galdatzen du.

## VI. EUSKADI EUROPAR BATASUNEAN

Eusko Alkartasunak bere izenean jarduten du Europan, baita Europako Aliantza Librearekin (EAL) lankidetzan ere, Eusko Alkartasuna aliantza horretako kide fundatzailea dela aintzat hartuta. EAL aliantzak, europar esparruko Alderdi Politikoa den heinean, Europar Batasunean, autodeterminazio-eskubidearen, parlamentu-demokraziaren eta giza eskubideen alde diharduten nazioko, eskualdeko eta autonomia-erkidegoko alderdiak biltzen ditu.

Aliantza horren bitartez, nazionalismo eta erregionalismo demokratikoak egitura politiko jakin batean bildu nahi dira, europar politikan parte hartzeko aukera izan dezaten. Izan ere, kontuan hartzeko egitura hori sortu ezean hainbat alderdik, beren edo ordezkatzan duten lurraldearen tamaina txikia dela-eta, ezin izango lukete europar politikan parte hartu, eta ondorioz politika horretatik kanpo geratuko lirатеke.

AEL aliantza herrialde, hizkuntza eta kulturen arteko elkartasun-printzipioari atxiki zaio, Europa demokratiko eta batua eraikitzeko oinarria ezartzearen. Estatu-nazioaren kontzeptu jakobinoa gainditu ez ezik, Europar Batasunaren egungo eredua ere ukatzen du, botere guztia Estatu handi kideen eskura uzten baitu egitura monolitikoaren arabera.

Herri guztiek Europako prozesu politikoan parte-hartze handiagoa izan dezaten lortzeko, autogobernuaren eta gure herrien identitatearen errekonozimendura bideratzen ditu ahalegin guztiak AEL aliantzak. Horren haritik, gure errebindikazioak honako hauen bitartez bideratu nahi dira:

1. Egitura instituzionalen sinplifikazioa eta demokratizazioa:
  - Alderdi Politikoen osatuko lukete Europako Parlamentua
  - Herrien Senatua, Estatuaren, Herrien eta Eskualdeen ordezkartzan
  - Bi Ganberak legegileak izango lirатеke eta Batzordeak benetako botere betearazleak izango lituzke.
2. Aniztasun konstituzionala. Horren arabera, Gobernu-maila bakoitzak —Batasunak, Estatuak, Estatu Autonomoak eta Eskualdeak— bere eskumen-maila bereganatuko luke, hierarkia-mendetasunik gabe eta lankidetzeta-maila berberari eutsiz, Herrien Konfederazioa eta gobernantza-sarea eratuta.



3. Hizkuntza eta kultura guztiek tratu eta errekonozimendu berbera izatea, tresna juridiko lotesleak ezarriz eta eremu urriko hizkuntzak garatu eta normalizatzeko aurrekontuak finantzatzuz.
4. Eskualdeek egiturazko Funtzen kontrolaren eta kudeaketaren ardura hartzea.
5. Eskualde arteko eta mugaz gaindiko lankidetzak ezartzeko eta euroeskualdeak garatzeko askatasuna, estatu-tutoretzarik gabe
6. Gizarte-koheziarako elkartasuna, berdintasuna eta bizi-kalitatea babestea Ongizate Estatuaren esparruan, gizartearen, lanaren eta ingurumenaren arloetako arauzko tresnak erabiliz.
7. Batasun osorako kanpo-politika komuna, segurtasuna, diplomazia eta errefuxiatu politikoekiko errespetua barnean hartuz, Europako defentsa erakunde bakarrean bilduz, gerraren aurkakoa izango den eta gerraren arrazoi nagusiei —injustizia eta gosea— aurre egingo dien mundu multipolarra babesteko.
8. Aldarrikatu nahi dugu Europar Batasunak bakea arbitratu eta bermatu behar duela, bere mugen barnean gatazkak sortzen direnean.
9. Batasun orekatua sortu nahi dugu, lankidetzan eta subsidiarotasun-printzipioari jarraiki jardungo duten Herriek osatua
10. Multilateraltasunaren, elkarrizketaren, akordioaren eta gutxiengoekiko errespetuaren erreferentzia izan behar du Europar Batasunak, baita Ongizate Estatuaren eta kudeaketa publikoko europar ereduaren defendatzaile ere.

Oraingoz Euskadiri bakarrik dagokion ikuspegi espezifikoki eta zehatzari jarraituz, EAK, berez, eta AEL aliantzaren bitartez eta lortuko dituen berme guztiei esker, **zerga-subirotasunaren** arloko gure erakundeak babestu eta hedatzera bideratu nahi ditu ahalegin guztiak, gaur egun mehatxupean daudela aintzat hartuta, ezjakintasunagatik eta gure eskumenekoak diren finantza-alderdien erabakiak hartzen dituzten Europar Erakundeetan — ECOFINen, esaterako— zuzeneko presentziarik ez dugulako.

Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak, “Azore”ei buruzko Epaian, Europako Batzordeari kargu hartu dio Gobernu Autonomo bati dagokion Estatuaren gainerako lurraldeetan indarrean daudenez bestelako zerga-tasak ezar ditzan debekatzen ahaleginu delako. Tesi horrek itxaropenaren atea zabaltzen dizkio gure zerga-araudiari (eta 2008ko irailean berretsi dute Kontzertu Ekonomikoari buruzko epai espezifikoki baten bidez), Eskualdeak neurria hartzeko nahikoa autonomia eduki dezan agintzen baitu; aldi berean, ordea, neurriaren

ondorio politiko eta finantzarioak hartu behar ditu bere gain, beste Eskualdeetatik edo Gobernu Zentraletik eratorritako laguntza- edo diru-laguntzen babesa edo konpentsazioa jasotzeko aukerarik gabe.

Ebazpen horri merezi duen garrantzia eman behar zaio, baina gure itun- edo hitzarmen-sistema ezin da unean uneko erabaki judizialen eraginpean egon; aitzitik, Batasunaren Itunean esanbidez jaso behar da, edo bestela Europako Batzordearentzako loteslea den tresna batean, Kanarietako Erregimen Berezia dagoen bezala, urrutira joan gabe. Horixe da Batasuna behartzeko eta Batzordeak onartzeko modu bakarra. Itunaren eta Hitzarmenaren arazoa ez da ezaguna, letoniar ogasuna edo esloveniar zerga-sistema baino zaharragoa bada ere, baina arazoa are larriagoa da, Europar Batasunarentzat ez baita existitzen

Errebindikatu beharreko beste alderdia zera da, EBko Ekonomia eta Finantza Gaietako Ministroak biltzen dituen ECOFINen zuzeneko presentzia izatea, gai horrek krisia eragin baitzuen 2002an Ituna berritzerakoan. Erkidegoko araudiak ez du gure presentzia galarazten, baina Estatu espainolaren erabakiak aintzat hartzeko eskatzen du, eta Estatu espainolak behin eta berriz horren aurkako jarrera adierazi du. Erakundeko garrantzizko kideek nabarmendu dutenez, pintoreskoa eta kontraesankorra ere bada Batasunean Euskadiren interesak babestearen ardura Estatuaren barnean Euskadiren zerga-araudiari eraso eta horren aurka egiten dutenen esku uztea.

Europar hitza eta presentzia ukatzen digute, Estatuak baino ez baitira onartzen erreferentzia-esparru gisa. Horren aurrean, gure erreferentzia-esparru propioa sortzea da gure zerga-sistema ziurtatzeko modurik onena, Autodeterminazio-eskubidea gauzatuz eta printzipio demokratikoa aplikatuz Europar Batasunean eskubide osoz txertatzeko.

Egungo zirkunstantzia politikoek irauten duten bitartean, estatu espainolean barruti bakarra duen Europako hauteskundeetarako egungo sistema aldatzea eskatuko du EAK.

**HORI GUZTIA KONTUAN IZANDA**, gaur inoiz baino gehiago, bere balio zibiko eta moralak berresten ditu EAK, baita independentziako, lurraldetasuneko eta sozialdemokrazia eraldatzaileko bere printzipio politikoak ere, betiere giza eskubideekiko errespetu osoz jardunez, eta balio eta printzipio horiek partekatzen dituzten indar politiko eta sozial guztiak bilduko dituen esparru politiko bat lortzeko bere konpromisoa berretsiz.